



Andoaingo Udala

MEMORIAREN EGUNA

Memoriaren Eguna ospatzen dugu gaurkoan, eta oroipenerako egun honetan Andoaingo herritar guztiei dei egiten diegu ez dezaten iragana ahaztu, ezta gure gizarteak orokorrean eta modu zehatzean, euren min eta sufrimendu bidegabeak onartzea beharrezkoa den biktima batzuek jasandako ondorio lazgarriak. Biktima horiei elkartasuna, enpatia, egia, justizia, memoria, errekonozimendua eta erreparazioa zor dizkiegu.

Ideien aniztasunean, printzipio demokratikoetan eta giza-eskubideen defentsan oinarritutako memoria inklusibo batekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu, elkarrizketa eta elkarren onarpena sustatuko duena eta gaurko eta biharko bizikidetzara eraikitzen lagunduko duena. Gure artean adostasunez lantzen eta garatzen ari garen konpromisoa da hori.

Horregatik adierazten dugu:

Indarkeria eta giza-eskubideen urraketa mota guztien gaitzespenetik abiatuta, memoriak terrorismo biktima guztien errekonozimendua, erreparazioa eta ez errepikatzearen bermea sustatu behar dituela.

Horregatik guztiatik, Andoainen memoria politiketan lan egiten eta sakontzen jarraitzeko gure borondatea eta konpromisoa berresten dugu, euren duintasuna bidegabekeriak erasotua ikusi izan duten biktima guztien erreparazioa lortzeko, baita bidegabekeria horiek errepika ez daitezen bermatzeko ere.

Andoainen, 2017ko azaroaren 10ean